

50 egunez egun



2013ko abendua

Beasaingo udal aldizkaria
beasain



Beasaingo udala



**Errekarte inguruaren etorkizuna
erabakitzeko garaia**

2 Iritzia 3 Hondakinak 4 2014ko aurrekontuak 5 Karrikan berdintasun irrikan
6-7 Errekarte 8 Euskara 9 Gazteria eta GeoBeasain 10 - 11 laburrak 12 agenda

Gogo batez gizarteari begira

Bukatzera doan urte honetan, Udalak datorren urteko aurrekontuetan dago murgilduta. Gure lanaren norabidea garbia izan da krisi garai honetan, ongizate zerbitzuak indartzen jarraitzea. Bizi dugun testuinguru ekonomiko ilun honetan, gizarte zerbitzuak duten izaera unibertsalari eutsi behar diegu, pertsonen bizi baldintza duinak lortzea ahalbidetzen dien zerbitzuak baitira. Diru gutxiago dago Udaletan, baina oinarritzkoa denari lehentasuna emanez, gastu sozialari, oinarritzko beharrei eta beasaindarren ongizateari erantzuten jarraitzen dugu. Ongizate sailak alor desberdinak eta herritarren eskura zerbitzu ugari jartzen ditu. Datorren urtea proiektu berriekin hasi nahi dugu, gazte eta adineko pertsonen prebentzio lana bultzatuz eta baliabideak eta laguntzak urtero legez, zuzen bideratuz.

Udaleko Ongizate sailak aurten herrian sortu diren beharrei erantzun die. Oso gertuko saila da, ordua eta txanda

idoia baztarrika • udaletik

hartuz harrera zuzena egiten die herritarrei gai desberdinen inguruan informatuz eta lagunduz. Aurten informazioa herrian ez ezik, landa eremuko azoetara ere zabaldu dugu, herritarrek dituzten laguntza, zerbitzu eta eskubiak berri emanez.

Udal honen gizarte arloko gastua aurreko urteetan baino handiago izango da, gizarte-behar berrien arabera zerbitzuak gehituz eta herritarren behar eta proposamenei ateak irekiz.

En este fin de año, el Ayuntamiento está inmerso en la elaboración del presupuesto de 2014. El principal objeto de nuestro trabajo ha sido el de seguir potenciando el servicio de bienestar. En esta coyuntura económica tan adversa que nos está tocando vivir, es fundamental mantener el

carácter universal de los servicios sociales, siendo éstos elementos fundamentales para garantizar unas condiciones de vida dignas a las personas.

Hay menos dinero en los Ayuntamientos, pero priorizando lo básico, seguimos respondiendo al gasto social, a las necesidades básicas y al bienestar de los y las beasaindarras. Queremos iniciar el año con proyectos nuevos, fomentando el trabajo en el ámbito de la prevención de jóvenes y personas mayores, y destinando las ayudas públicas a quien más necesidad tenga.

El gasto social de este Ayuntamiento superará el de los años anteriores, abriendo las puertas a las propuestas de la ciudadanía y aumentando los servicios en base a las nuevas necesidades que se están creando.



inkesta Zein indargune eta zein ahulgune ditu euskarak Beasainen?



Josu Salabarría

Euskaraz dakiten gehienek, hitz egiten dutela ikusten dut nik. Kanpotarrek, egia da, ia-ia ez dutela euskara ikasteko ahaleginik egiten. Espero dut ondorengo belaunaldiak euskara mantenduko dutela, etorkin horien haurrek ere, eskolan ikasten dutelako.



Mary García

No creo que el euskara esté en peligro. Creo que el euskara está muy-muy metido. Es verdad que si hay alguien que hable en castellano, coge más fuerza que el euskara. Pero, en la escuela aprenden mucho euskara. Saben defenderse bien en los dos idiomas.



Maitane Legarreta

Belaunaldi berrietan euskararen ezagutza goraka doa, baina, arazoa erabileran dago: eskolako hizkuntza bezala ikusten dute. Kanpoan gaztelaniarako joera handia dute. Erronka gazte horiek euskaraz 24 ordutan hitz egitea izan behar luke, eurak direlako geroa.

Zaldizurretako auzokonposta gunea

Abenduaren hasierarako Zaldizurretako auzokonposta egiteko gunea egokitzekoa da Beasaingo Udala. Anbulatorio zaharra zegoen lekuan, inguruko familiek konposta egiteko aukera izango dute.

Auzokonposta gunea egiteko materiala prest dauka Beasaingo Udalak. Euriak atertzen badu, abendu hasierarako martxan jarrita egoteko asmoa dauka Udalak. Bi konpostagailurentzako lekua duen gunea jarriko da. Dena den, momentuz, bakarra kokatuko da.

Gune bakoitzean, hamar familik izango dute konposta egiteko aukera. Zaldizurretako eta inguruko familiek izango dute bertan parte hartzeko aukera. Interesa duten familiek Sasieta edo Udaletxean eman dezakete izena. Sasietak koordinatuko du interesatuekin gunearen hasiera. Era horretan, Udalak herritarrek animatu nahi ditu Zaldizurretako auzokonpostajea izena emateko.

Aurrera begira, auzokonposta herriko beste gune batzuetara zabaltzeko asmoa du Udalak.



Las familias de Zaldizurreta y alrededores, podrán hacer compostaje comunitario en el punto de compostaje que se instalará en el jardín, donde se ubicaba el antiguo ambulatorio. De momento, se colocará una compostadora para diez familias; pero se instalará una más, según aumente la demanda. El Ayuntamiento quiere animar a las familias para que se apunten en el compostaje comunitario de Zaldizurreta. Los interesados deberán de ponerse en contacto con el Ayuntamiento o con Sasieta. Más adelante, el Ayuntamiento instalará más puntos de compostaje comunitario en diferentes barrios del municipio.

•• Aurrera begira, auzo konposta herriko beste gune batzuetara zabaltzeko asmoa du Udalak. ••

Landa eremuko auzoetan gaikako bilketarako guneak egokituko dira

Gaikako hondakin bilketarako guneetan papera, plastikoa, beira eta errefusa biltzeko edukiontzia jarriko dira; hondakin organikoa jasotzeko autokonposta bultzatuko du Udalak.

Landa eremuko auzoetan egindako bileretan Udalak jaso zituen ekarpenen artean zegoen, auzoetan ere, birziklatzeko aukera izatea. Eskari horretatik abiatuta, gaikako hondakin bilketarako gune bereziak egokituko ditu Beasaingo Udalak. Lau edukiontzi jarriko dira gune bakoitzean: paperarentzako, ontzientzako, beirarentzako eta errefusarentzat. Edukiontzi marroirik ez da jarriko, Udala autokonpostajea bultzatu nahi duela.

Dagoeneko ontziak banatu eta ikastaroak ere eman zaizkie. Dena den, edozein zalantza argitzeko Sasietara deitzea komeni da. Gaikako hondakin bilke-

Bilketa guneak auzoz auzo

- » **Erauskin auzoa.** Hilerriko bidegurutzean.
- » **Loinatz auzoa.** Loinazko ermitarako bidegurutzean.
- » **Gudugarreta.** Orain edukiontzia dagoen lekuan.
- » **Arriaran.** Zubian.
- » **Garin.** Elizaren atzean.
- » **Astigarreta.** Orain edukiontzia dagoen lekuan.
- » **Salbatore.** Hotelaren atzean.

tarako guneak irekiak izango dira, Gudugarretakoa, Salbatorekoa eta Arriarangoa izan ezik. Auzo horietakoei giltzak banatuko zaizkie.

En los barrios rurales Erauskin, Loinatz, Astigarreta, Gudugarreta, Arriaran, Salbatore y Garin se habilitarán puntos de recogida selectiva. En ellos, se pondrán 4 contenedores para recoger papel, envases, vidrio y resto. Para la recogida de la materia orgánica, se impulsará el autocompostaje. Esos puntos de recogida van a ser abiertos, excepto los de Gudugarreta, Salbatore y Arriaran, en los cuales se necesitará llave.

2014ko udal aurrekontuak osatzen

'Aurrekontu parte hartzaileen bidean' ekimenarekin herritarren eta eragileen hitza eta iritzia jasotzen aritu da Udala, 2014ko udal aurrekontuak garatzeko bidean. Emankorra izan da bidea.

Hirigintza, Ongizatea, Ingurumena, Euskara eta Kultura arloko eragileekin, eta landa eremuko auzoetako herritarrekin elkartu dira Beasaingo Udaleko arduradunak. Bilerak emankorrak izan dira ondoko koadroetan ikus daitekeen bezala.

Azken bilera abenduaren 4an

Abenduaren 4an, 18:00etan, Igartzako jauregian, azken bilera egingo da, proposamenen azterketa eta ondorioak azaltzeko.

El 4 de diciembre se celebrará a las 18:00 en Igartza, la última reunión del proceso de participación para elaborar el presupuesto municipal. En ella se analizarán propuestas y conclusiones que se han recavado en las anteriores reuniones realizadas con diferentes sectores y agentes del municipio.

Landa eremuko auzoak

Proposamen orokorra **auzoak biziberritzeko Plan Estrategiko** bat egitea izan zen.

» **Matxinbenta:** Taberna aurreko plaza konpontzea, auzorako sarrerak eta hilerrirako bidea egokitzea eta bidegorria egitea.

» **Arriaran:** Urtegirako bidexka eta elkarte atzeko plaza urbanizatzea.

» **Astigarreta:** Elizak erabiltzen ez duen espazioa elkargune izatea aztertzea, telefonoa eta internet zerbitzua jartzea eta garraiobidea ziurtatzea (umeak eskolara joateko edo/eta jende heldua herrira jaisteko).

» **Beasainmendi:** Luizien ondorioz itxita dagoen errekarari konponbidea ematea eta ureztatze-ahoa instalatzea.



Ongizatea

» Gizarte zerbitzuek eskaintzen dituzten **zerbitzuak herritarren** eskura jartzea, adibidez, informazio kanpainak eginez.

» Adineko pertsonentzako **prebentzio-estimulazio tailerrak** antolatzea.

» Hezkuntza sistematik kanpo geratu diren gazteei zuzendutako **motibazio tailerrak**, helburu hezitzailea izateaz gain, okupazionalak eta praktikoak direnak.

» **Adin ezberdinetako pertsonen arteko elkarlana** bultzatzea.

» Pertsona helduei zuzendutako **akonpainamendu programa** martxan jartzea.



Urbanismo

» **Priorización de peatones y ciclistas:** cerrar Nafarroa Etorbidea al tráfico y peatonalizarla.

» Revitalizar la calle **Oriamendi**.

» **Olaran:** fomentar un proceso de interiorización y empezar a pensar qué hacer con el edificio.

» **Reflexionar** sobre las viviendas vacías y comenzar a tomar decisiones.

» Elaborar un diagnóstico completo para renovar el **Plan General del municipio**.

N. Lidia Hernandez, Maribi Lopez eta M.J. Auzmendi «Beasain hiri segurua da, baina, hobetzeko puntuak identifikatu ditugu»

La Gestería Social Bidertu y Asmube, con la ayuda del Ayuntamiento de Beasain ha puesto en marcha un proyecto para hacer de Beasain un pueblo más seguro y adecuado para vivir: Karrikan berdintasun irrikan!. Para conocer los puntos que transmiten inseguridad a la ciudadanía, han realizado el mapa prohibido del municipio.

Zein da proiektu honen helburua?

Nerea Lidia Hernandez (Bider-tu): Proiektu honen helburua ez da inondik ere beldurra sortzea. Beasain oso hiri segurua da, baina, hobetzeko dauden puntuak identifikatu nahi izan ditugu, gero hobekuntzak Udalarari proposatzeko.

Zer pauso eman dituzue proiektu hau aurrera eramateko?

Maribi Lopez (Bidertu): Mapa egiteko fase ezberdinak eraman ditugu aurrera: informazioa banatu dugu Asmuben eta kalean, formakuntza ikastaroa egin genuen, jardunaldiak egin genituen jendearen iritzia bila kalera ateraz, ibilbide bat egin genuen herritarrek markatutako puntuak benetan arriskuak ziren ikusteko eta mapa batean herritarrek proposatutako puntuak zehaztu ditugu.

Zer erantzun jaso duzue?

Nerea Lidia Hernandez (Bider-tu): Oso gustura gaude orokorrean. Formakuntza nahi baino jende gutxiagok hartu zuen parte, baina, jardunaldietara jende dezente inguratu zen.

Puntu horiek errepikatu dituzte?

Maria Jesus Auzmendi (Asmube): Askok bai. Jendeak markatu dituen puntuak oso antzekoak direla ikusi dugu, adin desberdinekoak izanda ere, eta horrek beldur komunak daudela erakusten du.

Nola ikusi duzue Asmubeko kideek prozesua eta zer erantzun jaso duzue herritarren aldetik?

Maria Jesus Auzmendi (Asmube): Oso gustura gaude egindako lanarekin: Asmuben ez genuen uste horrelako zerbait egiteko gai izango gine-



11. orrian ikus daiteke 'Beasaingo hiri debekatua: hobetzeko puntuak' planoak.

•• «Kalea denona eta denontzat da eta biolentziari aurre, emakumeek eta gizonek egin behar diogu»
Hernandez (Bidertu) ••

•• «Mapa egiteko fase ezberdinak eraman ditugu aurrera: informazioa, formakuntza, jardunaldiak...»
Lopez (Bidertu) ••

•• «Ez genuen uste horrelako zerbait egiteko gai izango ginenik. Gainera, jendeak oso jarrera ona agertu du»
Auzmendi (Asmube) ••

nik. Gainera, jendeak oso jarrera ona agertu du proiektuarekiko: jende askok gelditzen gintuen kalean, proiektuaren inguruan interesa agertuz.

Bilketa lana eginda dago beraz. Eta orain, zer?

Maribi Lopez (Bidertu): Orain, memoria teknikoa egiten ari dira Udalarari bildutako informazioa erakutsi eta proposamenak egiteko, Foru Aldundira bidaltzeko eta Asmubeko, bertan egindako lanaren arrastoa gelditu dadin.

Herritarrei nola helarazi diezue egindako lana?

Nerea Lidia Hernandez (Bider-tu): Bideo bat egin dugu prozesuaren inguruan eta prozesu horren emaitzen inguruan. Azaroaren 27an eman genuen udaletxeko batzar aretoan. Facebooken ere orrialde bat ireki dugu, Karrikan berdintasun irrikan! izenarekin eta Asmubeko orrialdean ere informazioa jartzen dugu. Amaitzeko, gogorazi nahi dugu kalea denona eta denontzat dela, eta biolentziari aurre, emakumeek eta gizonek egin behar diogula.



Nolako Errekarte nahi duzu?

Beasaingo Udalak parte hartze prozesu bat jarriko du martxan, Errekarte auzoa eta bertan egitekoak diren etxebizitzak nolakoak izatea nahi duten erabakitzeko, iritzi eta beharrak kontuan hartuz

Udalaren ustez 2007an aldatu ziren arau subsidiarioak beste egoera sozioekonomiko batekin lotuta zeuden eta eredu horrek porrot egin du: Etengabeko hazkundera, etxebizitza gehiago egiteak eta etxe eredu jakin bat sustatzeak, ez zuen etxebizitza eskubidea bermatzen. Hori dela eta, hirigintza eredu berri baten aldeko apustua egiten du Udalak, ingurumena errespetatuz eta ondare eraikiarekiko errespetua bermatuz, dagoena berrerabiliz eta lur berriak okupatu gabe. Udalaren ustez, espazio publikoak sustatu behar dira, hori lehenetsiz eta garapen guztien erdigunean jarritz. Orain arte egin denaren kontra, alegia.

Aurrez eginda zegoen proiektuarekin alderatuz, bi aldaketa nagusi proposa-

Hiru saio

**Igartzako jauregian, 19:00etan
egingo dira hiru bilera:**

Abenduak 2, astelehena

Prozesuaren aurkezpen orokorra, aurreko proiektuaren aurkezpena eta balizko proposamenak eta aukerak aztertzea.

Abenduak 10 - 17

Gai desberdinen eztabaida hainbat adituren laguntzarekin.

tzen ditu Udalak: Etxebizitza gutxiago egitea eta espazio libre eta berdegune gehiago izatea. Etxebizitza gutxiago egingo balira ere, etxebizitza babestu gehiago egongo lirateke proiektu berri honen barruan: aurreko proiektuan etxebizitza babestuak %37a ziren eta guk proposatzen dugunean %53a dira babestuak. «Berdegune gehiago utzi nahi dugu, ez dugulako modu basatian eraiki nahi, zentzuz eta modu jasangarrian egin nahi dugu», dio Koldo Agirre alkateak. Prozesu honetan, ordean, muga batzuk daude «ez gara hutsetik hasten, egungo lurzoruari legea bete egin behar da». Aurreko legealdian Errekarteren proiektua lege zaharren arabera egin zen, eta egun, beste lege batzuk jarraitu beharra daude.

El Ayuntamiento de Beasain pondrá en marcha un proceso de participación ciudadana para decidir aspectos referentes a las nuevas construcciones del proyecto del barrio Errekarte.

Desde el Ayuntamiento se apuesta por un nuevo modelo de urbanismo que respete el medio ambiente y el patrimonio ya construido, reutilizando las cons-

trucciones que ya están y ocupando la menor cantidad de terreno virgen posible. Se apuesta también por los espacios públicos, poniendo éstos en el centro de todo progreso. Es decir, «apostamos por un modelo totalmente diferente al anterior», dice el alcalde Koldo Agirre. Por eso, siguiendo las normativas vigentes, «hemos diseñado un nuevo pro-

yecto para Errekarte que servirá de base para el proceso de participación».

Aunque existan ciertos límites legislativos, «hay muchas otras cosas que pueden decidir las y los beasaindarras y ésa es nuestra intención: realizar un proyecto acorde a las necesidades y opiniones de todos», comenta el alcalde Koldo Agirre. Se debatirán temas ta-



Herritarren iritzia jaso nahi dugu

Horregatik, etxebizitza babestuen ezaugarriak berraztertu behar direla uste du Udalak, horretarako herritarren artean eztabaida sortuz. «Hirigintza berri hau herritarren beharrak ezagutzeko eta hauei erantzunez sortu nahi dugu», dio Koldo Agirre alkateak. Eztabaida hori sustatu eta bide onetik eramateko, parte hartze prozesu bat jarriko da martxan.

Bertan Nicola Foroni, parte hartze prozesuetan adituak parte hartuko du. Bere laguntzarekin, Udalak egin duen oinarritzko proposamenetik abiatuta eta egungo legeak jarraituz, herritarrek zer nolako auzoa eta etxebizitzak nahi dituzten eztabaidatuko da.

les como los espacios públicos, zonas comunes, aparcamientos, qué tipo de viviendas protegidas queremos, la tipología que queremos que tengan, cómo tener en cuenta la perspectiva de género.

Las reuniones se realizarán el 2, el 10 y el 17 de diciembre en el palacio Igar-tza, a las 19:00 de la tarde.

Eztabaidatzeko gaiak

Mugak, egon badaude ere, herritarrek iritzia eman ahal izango dituzte, proposamenak egin, irizpideak jarri eta zenbait gaietan baita erabakiak hartu ere.

» **Espazio publikoaren ezaugarriak.** Nolako plazak, parkeak, kaleak... nahi ditugu?

» **Auzoan erabilera aniztasuna lortzea.** Zein erabilera dira egokienak? Etxebizitza, lana eta aisia bateratzen dituen auzoa behar da?

» **Hirigintza genero ikuspegitik.** Ikuspegi hau sustatzeko zein elementu hartu behar dira kontuan?

» **Auzoko mugikortasuna eta aparkalekuaren arazoa.** Nolakoa izan behar du integrazio/segregazio mailak? Gainazaleko aparkaleku publikoak behar dira? Aparkaleku pribatuak es-

kaerarik ba al dago?

» **Jasangarritasun irizpideak plangintzatik harago.** Auzo jasangarriago baten alde egin nahi dugu?

» **Zerbitzu konpartituen gaia.** Zein zerbitzu konpartitu berri izan daitezke planteagarriak?

» **Babestutako etxebizitzetako buroz.** Zein motatakoak izan behar dute? Babes ofizialekoak, sozialak, tasatuak? Zein erregimenetan? Jabetzan, alokairuan?

» **Etxebizitzaren tipologia berriak.** Nolako etxebizitzak behar dira?

Mintzodromoarekin ospatuko da Euskararen Nazioarteko Eguna

Abenduaren 3a, Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta, aurten ere, Mintzodromoa antolatu dute Udalak eta herriko euskaltegiak. Euskaldun zaharrak eta berriak elkartuko dira mahaiaren bueltan.

Abenduaren 3an, 19:00etan, Loinazko San Martin plazaren azpian, hitzordua jarrita dago Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko. Aurten ere, mahaiaren bueltan elkartuko dira euskaldun zaharrak eta berriak. Erronka euskararen erabilera kalera ateratzea da, euskaldunak eta euskara ikasten ari direnak euskaraz solasean jartzeari. Parthartzaileek, lau laguneko taldetan banatuta, 15 minutuko mintza saioak egingo dituzte. Txokolate beroa ere eskainiko zaie parte hartzaileei. Parte hartu nahi dutenek, udaleko kultura eta euskara zerbitzura, Udal euskaltegi- edo AEK-ra jo behar dute.

Era berean, Kontseilua erakundearen aldarrikapenarekin bat egin du Udalak. Era horretan, abenduaren 3an, 'Euskaraz bizi nahi dut' banderak etxeetako balkoietan zintzilikatzeko deia egin du Udalak. Banderak udaleko harrera bulegoan eta bibliotekan daude salgai 3 euroren truke.



El 3 de diciembre, se celebra el Día Internacional del Euskara. Una vez más, se ha organizado la iniciativa Mintzodromoa. En ella se habilitarán espacios de tertulia en euskara entre estudiantes de euskara y personas euskaldunes. La cita es a las 19:00 debado de la plaza

San Martin de Loinaz. A su vez el Ayuntamiento se ha unido a la iniciativa de Kontseilua y hace un llamamiento a colocar banderas de 'Euskaraz bizi nahi dut' en los balcones. Éstas se pueden comprar por 3 euros en el Ayuntamiento o en la biblioteca.

Euskal liburuen eta diskoen azoka

Ataun, Lazkao, Segura eta Ordiziarekin elkarlanean

Abenduaren 13tik 15era

Loinazko San Martin
plazaren azpian

Abenduak 13:

10:00-13:00 eta 17:00-20:00

Abenduak 14:

11:00-14:00 eta 17:00-20:00

Abenduak 15:

11:00 - 14:00 eta 17:00 - 19:00

Del 13 a 15 de diciembre

últimas novedades de la
literatura vasca, discos,
juguetes, dvd-s...

%15eko
deskontua



Oparitu euskal produktuak!

Gazteen adikzioen prebentzio plana

Beasaingo gazteen adikzioen prebentzio plana ezagutzera emateko eta plan horren inguruko ekarpenak, kezkak eta beharrak jasotzeko, abenduan bi bilera egingo ditu Udalak

Beasaingo gazteen droga kontsumoarekin eta teknologia berrien erabilera desegokiarekin kezkatutik, Beasaingo Udalak adikzioen prebentzioan esku-hartzeko beharra ikusten du. Horretarako adikzioen prebentzio plan bat eratu eta martxan jarri nahi du. Gazteen artean ohitura eta jokabide osasuntsuak sustatzeko, prebentzio plana ezagutzera eman, eta plan horren inguruan gazteen ekarpenak, kezkak eta beharrak jaso nahi ditu Udalak, baita haiekin lanean aritzen di-

ren eragileenak ere. Horretarako, bi bilera antolatu dituzte, Emunekin elkarlanean.

Bilerak / reuniones

Bilerak Udaletxeko Batzar aretoan izango dira, 18:00etan.

Abenduak 11: Gazteekin.

Abenduak 18: Eragileekin.

Besteak beste, 12 eta 25 urte bitarteko herriko gazteak, Udaleko prebentzio teknikaria, Udaleko ongizate eta gazteria sailak, nerabeen gurasoak, gazterekin lanean aritzen diren herriko beste eragile batzuk, ostalaritzako profesionalak, edariak saltzen dituzten dendariak eta Udaltzaingoa daude deituta. Udalak gazteen eta haiekin lanean aritzen diren eragileen ekarpenak kontuan hartu eta prebentzio planean sartzeko asmoa du. Hori dela eta, bileretan parte hartzeko deia ere luzatzen du.

GeoBeasain: herriari buruzko informazio osatua sarean

Geobeasain.net plataforma informatikoarekin Beasaini buruzko informazioa eskuratzeko aukera dago, 2 eta 3 dimentsioetan mapa interaktibo batean georeferentziatuta. Merkataritza gida, elkarteak, ondarea, zerbitzuak, ibilbideak eta hirigintza atalak biltzen ditu Geobeasainek. Plataforma honen berrikuntza nagusia zera da: ostalariek nahiz merkatariek beraien establezimenduei buruzko informazioa aldatu edo gehitu dezaketela. Bertan agertzen den datu basea egunean izateko, eragile guztien inplikazio aktiboa eskatzen du Udalak, «beraiek plataforma horretan sartu eta komertzioari buruzko informazioa eguneratuta izatea nahi dugu», dio Ane Egurtza teknikariak. www.geobeasain.net orrian bertan azaltzen da nola egin daitezkeen aldaketak.

Horrekin batera, pixkanaka herriaren inguruko informazio orokorra zabaltzen joatea ere bada Udalaren asmoa. «Adibidez, autokarabanentzako prestatutako den aparkalekuaren inguruko ordenantza eta araudia, herrian izaten diren ekintzen inguruko infor-



mazioa, TAOari buruzko informazioa... Beasaini buruzko ahalik eta informazio gehiena eta interesgarriena denon eskura jarri nahi da». Informazio hau guztia edozein gailu mugikor erabiliz eskura daiteke.

Mediante la plataforma informática geobeasain.net, se podrá obtener información sobre Beasain en 2 y 3 dimensiones a través de un mapa interactivo. Geobeasain abarca secciones de comercio, asociaciones, patrimonio, servicios, rutas y paseos y urbanismo. La

principal novedad de esta plataforma es que tanto comerciantes como hosteleros podrán introducir y actualizar datos sobre sus establecimientos.

El Ayuntamiento solicita la colaboración e implicación activa de los diferentes agentes, a efectos de actualizar la base de datos. En la página web www.geobeasain.net se dan las instrucciones para actualizar la información. Otro de los objetivos del Ayuntamiento es el de recopilar y difundir la información más actualizada sobre el municipio.

2014ko ordenantza fiskalak onartuta

Datorren urteko udal tasak eta zergak, orokorrean, KPIa, % 1,9, igotzea onartu zen urriaren 31ko udalbatzan. Baina badira Udalak nabarmendu nahi dituen hiru aldaketa ere.

Zaborra

Zaborraren tasa % 8 igoko zaio birziklatzen duen herritarrari, eta birziklatzen ez duenari, berriz, %30.

OHZ - IBI

Etxebizitzaren zerga, OHZ edo IBI deritzona, KPIa igoko da. Udal Gobernu Taldearen proposamena bigarren etxebizitza hutsari errekargoa aplikatzea izan bazen ere, udalbatzak beste proposamen bat onartu zuen: bigarren etxebizitzaren kasuan, %50eko hobaria izatea alokatu edo Bizigune edo antzerako programetan daudenentzat.

TAO

TAO sistemaren tarifak ere onartu dira. Lehen 15 minutuak dohainik izango dira. Egoiliar txartela, urtean, 40 euro kostako da.

El pleno celebrado el 31 de octubre aprobó la subida general del IPC (1,9%) en las Tasas e Impuestos municipales.

Residuos. La tasa de los Residuos Urbanos subirá un 8% para los que reciclan y un 30% para los que no lo hacen.

IBI. La subida general del IBI será del IPC (1,9%). Aunque la propuesta del equipo de Gobierno fue recargar la vivienda vacía, el pleno aprobó bonificar en un 50% a los que alquilan o ingresan en el programa Bizigune la segunda vivienda.

OTA. Por último, se aprobaron las tarifas de OTA. Los primeros 15 minutos serán gratuitos. La Tarjeta de Residente costará 40 € al año.

Astigarretako ur biltegia handitu eta bidea konponduko ditu Udalak

Astigarretan hainbat hobekuntza lan egingo ditu Udalak. Batetik, ur biltegia handitzeko egingo dituzte, «gaur egun dauden presio falta eta lehorte sasoiko biltegiatze arazoei konponbidea emateko». Ur biltegi berria 36 m³-koa egingo da (gaur egungoak 6 m³ ditu). Lanak Excavaciones Iturrioz-ek egingo ditu. Aurrekontua 37.958 € (bez barne) da.

Bidea

Bestetik, Olantxegi eta Etxeberri etxetarako sarbidea hormigonatu da ibilgailuentzako. Lanak Elorga S.L enpresak egin ditu. Lanen kostua 13.745 €koa izan da; Udalak 2.396 €ko laguntza jaso du Goimen erakundetik.

El Ayuntamiento realizará obras de reparación en Astigarreta. Por una parte, se iniciarán las obras de ampliación del depósito de agua. El depósito actual tiene una capacidad de 6m³ y tras las obras de ampliación pasará a tener 36m³. Con un presupuesto de 37.958€ será la empresa Excavaciones Iturrioz la encargada de ejecutar las obras.

Por otra parte, la empresa Elorga S.L ha sido la encargada de hormigonar el acceso a los caseríos Olantxategi y Etxeberri, con un presupuesto de 13.745€.

El Ayuntamiento ha recibido una ayuda de 2.396€ por parte de Goimen.



Auzolanean egin dute Matxinbentako parke berria.

Matxinbentan parke berria egin da

Matxinbentan auzolanean egingo dako haur parke berria dute, pilotaleku estaliaren aurrean. Lanak Azpeitiko Udalak koordinatu ditu. Udaletik adierazi dutenez, «apaiz etxeari zegokion lur eremuan zegoen kokatua Matxinbentako haur parkea. Apaiz etxea saldu egin da eta jabe berriak aprobetxamendua eskatu zuen. Ondorioz aldatu egin da parkearen kokapena». Horretarako, orde, «pilotaleku estaliaren aurrean zeuden gradak kendu eta lekua egin zaie haur parkeko ele-

mentuei». Segurtasun zorua jarri zaio parkeari. Kostuei dagokionean, «zorua inguruan kontabilizatuta dagoen gastua 6.860 € da».

Las obras del nuevo parque infantil en Matxinbenta han sido diseñadas y ejecutadas en auzolan por los vecinos del barrio. La nueva ubicación está en frente del frontón cubierto. Se ha dotado de un suelo de seguridad cuyo coste ha sido de 6.860 €. La obra se ha llevado a cabo en coordinación con el Ayuntamiento de Azpeitia.

Gabonetako apaingarri birziklagarriak

Gabonetan ere, Udalak, energia-
ren eta baliabideen erabilera
arduratsua bultzatuko du. Iaz
kaleak material birziklagarriekin eginda-
ko apaingarriekin apaindu ziren; aurten
herriko hainbat eraikin ere barrutik
apainduko dituzte. Herriko ikastetxeeta-
ko ikasleek aurten egingo dituzten
apaingarri berriei batera, iaz eginda-
koak ere erabiliko dituzte, berrerabilpe-
naren izaera sustatzeko.

El Ayuntamiento quiere hacer un lla-
mamiento a un consumo energético res-
ponsable ante las fechas navideñas. Por
segundo año consecutivo, y en coopera-
ción con los centros de enseñanza de la
localidad, los elementos decorativos na-
videños se realizarán con materiales re-



ciclables. Los citados elementos decorati-
vos se colocarán tanto en las fachadas
como en los interiores de los locales mu-
nicipales.


Panel turistikoak

Beasaingo ondarea aberastu eta be-
har duen balorea eman nahian, herri-
ko zenbait leku esanguratsuri buruzko
informazioa duten panelak jarriko ditu
Udalak. Murumendi eta Usurbe men-
diak, Katea kalea, Jose Migel Baran-
darian parkea, Nafarroa etorbidea,
Arana kalea, Sagastigoitiko parkea,
Artzaienea ondoko eskailera, Udale-
txea, Urbieta eraikina, eta Gudugarre-
ta, Aratz-Matxinbenta, Astigarreta,
Arriaran, Garin eta Ezkiaga auzoei
buruzko panelak jarriko ditu.

Con el objetivo de enriquecer el Pa-
trimonio de Beasain y darle el valor
que se merece, el Ayuntamiento ubica-
rá paneles informativos en diversos
puntos de la localidad. Además de in-
formación de cada sitio, se pondrán
códigos QR de Geobeasain y Goitur.

Beasaingo hiri debekatua: hobetzeko puntuak

Antzizar Kalea Bidegorria puntu honetan eteten da, errepidea egoera txarrean eta espaloirik ez dago.  Argiztapena hobetu, landareak zaindu, errepidea konpondu eta espaloia jarri.	Dolarea Parkea Utzikeri egoera  Herritar guztientzako ekintzak antolatu lekua biziberritzeko.	Jose Migel Barandiaran Plaza Horma zikinetan pintada sexistak eta arrazistak daude.  Bainu publikoak jarri.	Andre Mari kaleko tunela Babesgabetasunaren, ziurgabetasunaren eta segurtasun-gabeziaren sentsazioa sortzen dituen gunea. 	Bernedoko aparkalekura sarbideko tunela  Espaloia eteten dela adierazten duen señalea jarri.
Institurako sarbideko tunela  Jantzeraren baten antolaketa, gasteria bere arduraren eta mantenimendu inplikatzeko.	Jose Martin Arana plaza Segurtasun arazoak  Plazaren erabilera eta gasamena hiritar guztiei zabalitzeko jarduerak antolatu.		Bista Alai Kalea  Espaloirik gabeko gunea, urbanizatu gabeko itxurarekin eta Sagastigoiti parkerako sarbide oso prezioso.	BEASAINGO HIRI DEBEKATUAREN MAPA, 2013. KARRIKAN BERDINTASUN IRRIKIAN!



3 asteartea

19:00 Mintzodromoa. Loinazko San Martin plaza azpian.

8 igandea

12:30 Kontzertua: Kantu irekia. Igartzako jauregian.

9 astelehena

18:00 Euskararen inguruko bilera. Igartzako jauregian.

10 asteartea

18:00 Hitzaldia: 'Gabonak eta jostailuak: kontsumo jasangarria'. Ondoren, *Clownclusiones*. Igartzako jauregian.

13 - 15

Liburu eta disko azoka. Loinazko San Martin plaza azpian.

13 ostirala

12:00 Olentzeroren marrazki lehiaketako sari banaketa. Loinazko San Martin plaza azpian.

15 igandea

08:00 Mendi irteera: Beasaingo mugak. Antolatzailea: Aizkorri mendizale elkarte.

21 larunbata

20:00 Musika Eskolaren Eguberrietako kontzertua. Andre Mari Zeruratuaren parrokan.

22 igandea

19:00 VIII. Gospel zikloa: The Upper Room Gospel. Igartzako jauregian.

24 asteartea

08:00 Mendi irteera: Aizkorri. Antolatzailea: Aitzgorri Mendizale Elkartea.



12:00 Olentzero. Ikastetxeen bilkura. Loinazko San Martin plazan.

17:30 Gabon eskea. Igartzako multzotik hasi eta herriko kaleetan zehar.

25 asteazkena

12:00 Udal txistularien bandaren kalejira, herriko kaleetan zehar.

26-28

16:00-19:30 Gabonetako haur parkea. Antzizar kiroldegian.

28 larunbata

19:30 Ostadar dantza taldearen Gabonetako dantza jaialdia. Usurbe antzokian.

29 igandea

19:00 Loinatz abesbatzaren Eguberrietako kontzertu berezia. Andre Mari Zeruratuaren parrokan. Antolatzailea: Loinatz abesbatza.

31 asteartea

08:00 Mendi irteera: Txindoki. Antolatzailea: Aizkorri mendizale elkarte.

12:00 San Silvestre lasterketa herrikoia. Herriko kaleetan.

Goieniz zine kluba

Marina Abramovic. The artist is present:

Abenduak 5, osteguna: 21:00.

7 cajas:

Abenduak 19, osteguna: 21:00.

Gau laburra:

Abenduak 27, ostirala: 21:00.

Gabon gaztea

Eizu Gaztelekuak 'Gabon gaztea' antolatu du 13-17 urte bitarteko nerabeentzat.

Abenduak 23, astelehena:

17:00 Play eta Wii txapelketak: Fifa, Mariokart eta JustDance.

Abenduak 26, osteguna:

10:00 Tren geltokitik irteera Txuri Urdinera. Kuota: 12 euro. Izena azaroaren 29tik abenduaren 1era bitartean eman behar da.

Abenduak 27, ostirala:

17:00 DJ tailerra. Kuota: 2 euro. Izena abenduaren 8tik 10era bitartean eman behar da.

Abenduak 28, larunbata:

19:00 Eizu Gaztelekuetik irteera: autobusez Bilbora Euskal Selektzioaren futbol partidura. Kuota 15 euro. Izena abenduaren 1era bitartean eman behar da.

Abenduak 29, igandea:

17:00 Ping pong eta mahai futbol txapelketak.

Abenduak 30, astelehena:

17:00 Disko gaztea musika festa.

Abenduak 31, asteartea:

11:00 San Silbestre txikia.

Urtarrilak 2 eta 3:

10:00 Futbito txapelketa, Kiroldegian. Izena abenduaren 8tik 10era bitartean eman behar da.

Urtarrilak 5, igandea:

11:00 Sukaldaritza tailerra eta bazkaria. Kuota: 3 euro. Izena abenduaren 8tik 10era bitartean eman behar da.

18:00 Erregeen zamalkada.

Erakusketak

Usurbe Antzokiko erakusketa aretoan.

Abenduaren 8ra arte: Argazki erakusketa: Javier Fernandez Ferreras. Antolatzailea: Argizpi argazkizale elkarte.

Abenduaren 14tik 29ra: XII. Goierriko artisten topaketa.

beasain egunez egun

Argitaratzailea: Beasaingo Udala
Helbidea: Loinazko San Martin plaza
Posta elektronikoa: udala@beasain.net

Telefona: 943 02 80 50
Webgunea: www.beasain.org
Diseinua: Biderra Zerbitzuak

